



Gizakien eta animalien esposizioa SARS-CoV-2 birusarekiko

FAO (<http://www.fao.org/espana/es/>)k ebaluazio kualitatibo bat argitaratu du, non **gizakiek eta animaliek SARS-CoV-2 birusarekiko izan duten esposizioa** aztertzen den. Ebaluazio horrek 2020ko ekainaren 30ean eskuragarri zegoen **ebidentzia zientifikoaren berrikuspen xehatua eskaintzen du** eta eremu horretako ikerketa-behar nagusiak identifikatzen ditu.

Animaliekiko (basatiak, uretakoak, maskotak eta ekoizpenerako abereak) **kontaktuaren bidez SARS-CoV-2 birusarekin kontaktuan sartzeko arriskuaren ebaluazio** bat eskaintzen du txostenak, **baita animalietatik eratorritako produktuak** (haragia, organoak, gorputz-jariakinak, irazpenak eta hilotzak) erabili edo kontsumitzeak dakartzan arriskuena ere. Era berean, SARS-CoV-2 birusaren jatorri zoonotikoari edo animalien eta gizakien arteko kutsatzeari buruz dauden ezagutza-hutsuneak ere identifikatzen ditu.

Bukatzeko, **hainbat aukera ematen dira birusaren hedapena mugatzeko eta elikadura-sistemak babesteko**. Horri dagokionez, biosegurtasun-neurri zorrotzak gordetzea, animalia basatien salerosketako kontrolak eta murriztapenak ezartzea eta merkataritzako zein kontsumitzaileen ohiturak aldatzea gomendatzen da.

Exposure of humans or animals to SARS-CoV-2 from wild, livestock, companion and aquatic animals
(<http://www.fao.org/documents/card/en/c/ca9959en>)

×

Close